

# Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea, hezkuntza-esparruan



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

## ¿ZER DA EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA (EMG)?

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, hau da Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EMG): **"emakumeen organo genitaletan asaldurak edo lesioak eragiten dituzten prozedura guztiak, nahita eginak eta medikoak ez diren arrazoiengatik"**.

- Jarduera tradizional kaltegarri bat da, antzinako erro soziokultural sendoak dituena.
- Ez da erlijioan oinarritzen: inongo erlijioek ez du behartzen hori egitera, eta Koranak ez du haren aldeko inongo deialdirik jasutzen..
- Giza eskubideen urraketa bat da, bai eta neskek eta emakumeak menderatzeko eta bortizki tratatzeko modu bat ere.
- Ondorio fisiko eta psikologikoak ditu; neskek markatuta uzten baititu, betirako.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, lau EGM mota daude:

- **I. mota:** Klitori osoa edo haren parte bat erauzteak (klitoridotomia). Ohikoena da.
- **II. mota:** Klitori osoa edo haren parte bat eta ezpain txikiak erauzteak; batzuetan, ezpain handiak ere moztzen dituzte (eszisioa).
- **III. mota:** Baginaren zuloa estutzea, zigilu moduko bat sortzeko, ezpain txikiak edo handiak moztuz eta birkokatuz; kasu batzuetan klitoria erauzten dute, baina ez beti (infibulazioa edo zirkunzizio faraonikoa). Bi zulo txiki uzten dituzte, gernua eta hilerokoa haietatik irteteko.
- **IV. mota:** Kanpo-genitaletan lesioak eragiten dituzten gainerako prozedura guztiak, medikoak ez diren helburuekin eginak, hala nola zulotzea, ebakitzea, karrakatzea, kauterizatzea edo genitalen aldean substantzia korrosiboak sartzea.

- Kasu askotan, igarotze-erritua da, estatusa ematen duena, bai eta identitate etnikoa eta genero-identitatea ere. Haren bidez, gizartearen aitortza eta talde baten partaide izatea ere bilatzen da.
- Egiten duten taldeek belaunaldiz belaunaldi errepikatzen dute, eta arrazoi desberdinak ematen dituzte justifikatzeko: edertasuna, purutasuna, erreproduktzioa, kontrol sexuala, kohesio soziala, nesken eta emakumeen osasuna zaintzea eta umeak hilda jaiotzea saihestea, eta abar...
- Presio kulturala eta egitura soziala direla-eta, familientzat ez da batere erraza praktika hori baztertzeko, eta emakumeentzat banan-banan ere ez.


- Munduan, 200 milioi emakumeri egin zaie EGMa (UNICEF 2016).
- Urtero, 3 milioi neska daude beren genitalen mutilazioak nozitzeko arriskuan.
- Egunero, 8.000 neska egiten zaizkie mutilazioak.



## NON EGITEN DUTE?


- Afrikan batez ere baina ez Afrikan bakarrik.

Emakumeen Genitalen Mutilazioa batez ere Afrikako Saharaz Hegoaldeko 28 herrialdetan egiten dute, bai eta Erdialdeko Ekialdeko eta Asiako zenbait tokitan ere (Yemen, Oman, Irakeko Iparraldea, Indiako, Malasia eta Indonesiako zenbait erregiotan, besteak beste). WASSU-UAB



Genitalen mutilazioa sufritu duten 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen portzentaia (Iturria: UNICEF 2014)

- **Migrazio-mugimenduak direla-eta, Emakumeen Genitalen Mutilazioa sakabanatu da:** bere garaian toki jakin batzuetan baino ez zen gertatzen; gaur egun, berriz, globala da. Emakumeen Genitalen Mutilazioak bizirik dirau diasporan, eta, egun, Europan aurkitu daiteke, eta Australian, Amerikako Estatu Batuetan, eta abar...Migratzaileek beren kultura nora daramaten, hantxe aurkitu dezakegu



Iturria: Emakumeen genitalen mutilazioa (UNFPA, 2015)

- **Neska zein etnia-taldetako den inportanteagoa da haren jatorrizko herrialdea baino.** Batez ere aitaren etnia-taldea da inportantea:
  - **Hona EGMa egiten duten etniak:** Sarahule, Djola, Mandinga, Fulbé, Soninke, Bambara, Dogon, Edos, Awusa, Fante.

Zerrenda hori orientagarria da, baina kontuan hartu behar da batzuetan aurkitu ditzakegula genitalen mutilazioa nozitu ez duten emakumeak nahiz eta haien etnian ohikoa izan egitea, eta aldrebes: mutilazioa nozitu dutenak nahiz eta haien etnian ez dagoen egiteko ohiturari.

# ZER ERANTZUN DAUKAT PROFESIONAL BEZALA?

Neskak babestu behar ditut, haien eskubideak bermatuz, eta arau hauek guztiak betez:

- Europar Kontseiluaren Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11koa (Istanbulgo Hitzarmena).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- 230/2011 DEKRETUA, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

- Mutilen, nesken edo nerabeen giza eskubideen urraketa argiak dira talde soziokultural edo etniko batzuek egiten dituzten praktika batzuk, apartekoak edo ohikoagoak izanik ere. Praktika horiek babesik gabeko egoeratzat jotzen dira aipatutako tresnan, eta neurrikoak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Adibide batzuetan emakumeen genitalen mutilazioa aipatzen da, edo hura egiteko asmoa adieraztea –biak tipifikatuta daude Zigor Kodean–.

Babesik gabeko egoeren barruan, honako hau "larritzat" jotzen da:

- Jakitea edo susmatzea neskato edo neska nerabea baten aitak, amak edo haren tutoretza edo zaintza gauzatzen duten pertsonak neskari genitalen mutilazioa egiteko asmoa dutela, Espainian edo atzerrian. Adi egon: kasua "oso larritzat" joko dugu, baldin eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek informazioa eman eta gero (hau guztia azalduta: legeak nola jotzen duen emakumeen genitalen mutilazioa eta hura eginez gero zer-nolako ondorioak izango lituzkeen), neskatoaren edo neska nerabearen aitak edo amak edo haren tutoretza edo zaintza gauzatzen zuten pertsonak berdin jarraitzen badute, hau da, mutilazioa egiteko asmoz.

Genitalen mutilazioa delitua da, Espainiako Estatutik kanpo eginda ere (Zigor Kodearen 149.2. artikulua, 3/05 LO eta 1/2014 LO).

# EAE-N PROFESIONALKI JARDUTEKO OINARRIZKO PRINTZIOAK

- Ikuspegi hirukoitza: giza eskubideak, generoa eta haurrak babestu.
- Prebentzioa azpimarratu: prebentzioa da helburua.
- Adingabearen interes gorena babestu. Bigarren mailako biktima bihurtzea saihestu.
- Diziplinartekotasuna, koordinazioa eta lana sarean.
- Prestakuntza eman, sentikortu eta ezagutza sortu.
- Familiekin lan egin, estigmatizatzea saihestuz.
- Komunitate-lana egin eta kulturen arteko lana egin.
- Emakumeak ahaldundu, estrategia gisa eta gaia prebenitzeko esku hartzearen helburu gisa.

## IKASTETXEAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Hiru kasu:



### 1. Ohiko prozedura: matrikulazioan eta urtean zehar.

Matrikula egin ondoren, ikastetxeek ezarritako harrera-prozesuetan, arreta berezia emango zaie neskatilei, baldin eta EGMaren prebalentzia handia duten herrialdeetatik etorriak badira. Horretarako, ikastetxeek honela jokatu dute, betiere aurreko printzipioak betez, eta babesteko eta prebenitzeko eremu orokor baten barruan:

- Lehenik, ziurtatuko dute ikastetxean badagoela praktika horri buruzko informazioa eta prestakuntza duen norbait.
- Ez badago inor, ikastetxeko Zuzendaritzak zonako Berritzegunera joko du, behar duen informazioa lortzeko.
- Tutoreak informazio esanguratsua bilatuko du, ahalik eta hobeto lortzeko ikaslearen inklusio soziala eta pertsonala. Ikaslearekin eta haren familiarekin elkartzen denean jasoko du informazio hori, haien arteko konfiantza sortu ahala, ikaslearen ohiturekiko interesa erakutsiz.
- Ikaslearen familia genitalen mutilazioa praktikatzen duen etnia batekoa izanez gero, edo beste arrisku-faktore batzuk antzemanaz gero, neskaen osasuna aitzakiatzat hartuta (errebisioak, txertoak...), orientazioa emango zaio familiari, osasun-zerbitzuetara jo dezan. Familiari jakinaraziko zaio, orobat, ikastetxeak ere osasun-zerbitzuetara joko duela.
- Deskribatutako hiru kasuetan, tutoreak edo Zuzendaritza Taldeak informazioa emango die familiei, udaletan eta foru aldundian emakume-arloari zuzendutako zerbitzuei buruz.



## 2. Neskak bidaiatu aurretik: txertoa aitzakiatzat hartuko da, osasun-sistemearekin segimendua egiteko.


Irakasleen eta familien arteko harremanetan, informazio esanguratsuren bat jasotzen bada (jatorrizko herrira joango direla oportetara, familiak edo neskak azaldutako zer bait, neskak ongietorri festa egingo diotela aipatzen badu...), tutoreak horren berri emango dio ikastetxeko Zuzendaritza Taldeari, eta hark, aldi berean, informazioa emango dio Pediatria Taldeari, harekin koordinatuta jarduteko (pediatra eta/edo pediatria-arloko erizaina). Hala, bada, bidaia egitea aurreikusita dutela detektatuz gero, honela jokatu du ikastetxeak:

- Ikastetxeko Zuzendaritzak jakinaraziko dio familiari Osasun Zentrora jo behar duela (Pediatria zerbitzura), txertoez eta bestelako osasun-zainketez orientazioa eman diezaioten.
- Halaber, informazioa emango dio Osasun Zentroari familiak egin behar duen bidaiaz (Pediatria), eta horren berri emango dio familiari.

## 3. Neskak bidaiatu ondoren: bidaiatik bueltatzen denean desberdin jokatzeko badu (triste agertzen bada, edo isolatuta...), zuhurrena da arreta handiz behatzea neskak eta harekin hitz egitea, jokabide-aldaketa horrek ez baitu zertan esan nahi genitalen mutilazioa egin diotenik. Baina baldin eta susmatzen bada neskak osasun-galeren bat duela, edo arriskuren bat, familiarengana jo beharko da, bai eta Pediatria Taldearenera eta/edo gizarte-zerbitzuetara ere.

Jatorrizko herrialdeetik bueltatzen denean, neska desberdin jokatzeko hasten bada, edo, edozein gauza dela-eta, susmatzen badugu arrisku-egoeraren bat egon daitekeenik:

- Ikastetxeko Zuzendaritzak Osasun Zentroko Pediatria Taldera joko du, neskaren egoera jakinarazteko, eta familiari horren berri emango dio.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak jakinaraziko die udaleko gizarte-zerbitzuei zer gertatu den, egoera baloratzea eta haren segimendua egitea izan dezaten, beste erakunde eta zerbitzu batzuekin koordinatuta.



### Eskuliburuak

<http://www.bib.uab.cat/socials/exposicions/donesvio/docs/mutilacio/manualprofesionales.pdf>  
[mpazgbueno@mujeresenigualdad.com](mailto:mpazgbueno@mujeresenigualdad.com)

<http://www.bienestaryproteccioninfantil.es/imagenes/tablaContenidos03SubSec/Guia-MGF.pdf>

### Helbide interesgarriak:

[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net), [www.emakunde.euskadi.eus](http://www.emakunde.euskadi.eus), [www.un.org/es/index.html](http://www.un.org/es/index.html), [www.unicef.es](http://www.unicef.es), [www.mgf.uab.cat](http://www.mgf.uab.cat)